


# noaua

**Hondakinen  
kudeaketa ezagutzera  
etorri dira Galiziatik**

**Larunbat honetan,  
kantu-jira berezia**

**274 lasterkari aritu  
ziren Baxurde  
Krossan**



**Imanol Zubeldia, Kataluniako hauteskundeetan  
bozka emango duen usurbildarra:**

**“Ustelkeriak kalte handia egin du”**

# IRAILLEAN



hurbilag



## Irailaren 23tik 30era, %5eko DESKONTUA Hurbilagon


## Albistea iruditzen

# Talasoterapiara, NOAUA!ko bazkide izateagatik

Oporraldi osteko aldapa leuntzen laguntzeko opari bikaina dudarik gabe. NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide izateak dituen abantailak. Irudiko herritarra, Araitz Maeztu Maizi egokitu zaio, bazkideon artean 2 laguntzako talasoterapia zirkuitua oparitzeko zozketatu dugun saria. Irudian duzue sari-tua, seme-alabekin. Zorionak!

Hurrengo saritua zu izan zaitezke. NOAUA!ko bazkide ez bazara oraindik, etorri gure egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu bazkidetza. Urtean 36 euro dira. Argibide gehiagorako: 943 360 321 edo [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)



Orioko Aisia talasoterapiaren birezko zirkuitua egokitu zaio Araitz Maeztu Maizi, NOAUA!ko bazkide guztien artean eginiko zozketan. Seme-alabekin etorri zen sari bila.

## Laburrean

### 1946an jaiotako kinto bazkaria

Urriaren 18an Antxeta jatetxean batzeko deia egin dute. Izen emateko Laurok dendara gerturatu beharra dago, edo deitu bestela 943 363 448 telefono zenbakira. Apuntatzeko azken eguna urriaren 10a izango da.

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal presoan eta haien senideen eskubideak errespetatzea eskatzeko elkarretaratzea ostiral honetan, irailaren 25ean, 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

### Datorren igandean, ilargi gorria

Azken 30 urteetan izan ez duen itxura hartuko du ilargiak. Ilargi eklipse osoa izango dugu eta ohikoa baino distira handiagoa izango den ilargi gorrituko du. 2033ra arte ez da errepikatuko. Ia ikusteko moduko giroa dagoen.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzio@noaua.eus](mailto:erredakzio@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

## Aginduen erakargarritasun eza

**A**tentzia deitu dit. *Refugees welcome!* (*Busti zaitetz*) izeneko txartel bat zeraman auto batek atzeko kristalean. Bere atzetik doazen guztiak oharraz jabetu daitezten. Pentsatzen dut gidariak, edo haren etxeakoak, ezineraman handia izango dutela. Asaldaturik egongo direla azken asteotan eman den migrazioarekin. Asaldatzeko egoera baita. Izugarria, Siriako eta inguruetako iheslariekin gertatzen ari dena.

Esan bezala, atentzia deitu dit autoan txertatuta zegoen txartelak, *Busti zaitetz*

horrek bereziki. Eta zer pentsatua eman dit ondoren. Irudikatu ditut, ni bezala, *errepidean zehar neguko eguzkitan lanea dihoazten gizon/emakume bakartiak* (Xabier Lete handiari keinu bat izan nahi zuen, baina ez badut asmatu). Hilabete bukaerara iristeko hamaika komeria gaintitu behar dituztenak, etxeko mailegua pagatzeko larri dabilzanak, *Refugees* horien parekoak dituztenak munduko auskalo zein tokitan... Zenbatzen hasita, burukominen kasuistika hain handia izan daiteke.

Borondate onez idatzita egongo da txartela. Ez dut zalantza-

rik. Baina eskertuko nuke arazo larri honen zama eta arazo larri honen konponbidearen ardura herritar xumeen gain botako ez bagenu. Anabasa hori sustatu duten erakundeen pare jartzen ditugu herritar xumeak bestela. Eta ez zait bidezkoa iruditzen.

Elkartasun handiko jendea dugu inguruan. Eta eskerrak. Baina bestetik, aspalditik blai dagoen jende asko dago hemen. Ito beharrean. Eta gai honetan, baliabideak (politikoa, ekonomikoak, teknikoak...), instituzioen esku daude. Haiei zuzendua balego txartela, ados. Auto ofizialen leihoetan ipiniko balute (*busti zaitetz horri mugi zaitetz!* gehituta), edota aurrezki kuxen atarrietan itsatsi (etxebizitza huts pila dituzte, herritarrei modu bidegabean desjabetuak, portzierto).

Barka, akaso xehetasun txiki horri, *Busti zaitetz* delakoari, behar duen baino arreta gehiago ipini diot.

Dena den, lelo horrek badu batere gustuko ez dudana beste zerbait. Agindu itxuran idatzia dago. Eta aginduak, nahiz eta kasu honetan bezala borondate onenarekin idatzia izan, ez dira erakarri. Are gehiago, kontrako efektua sor dezakete.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Ilazki Gaintza | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue

## Usurbilgo jatorri aniztasuna, zenbakitan

Irailaren 12an ospatu zen Usurbil Herri Anitza jaialdia, jatorri ezberdinetako herritarren arteko loturak, harremanak sendotzeko ezin baliagarriagoa izan zen, elkarren berri izan edota elkar ezagutzeko baita. Elkar ezagutza sustatzeaz ari garela, Usurbilgo Udalaren web orrialdean, [usurbil.eus](http://usurbil.eus) atarian sartzen bazarete, "Jatorri Aniztasuna Zenbakitan" izeneko kontsultarako atal berri bat aurkituko duzue, datu interesgarri askorekin.

Udalak Aztikerrekin elkarlanean landu duen guneak helburu argi bat du; "datuen bidez elkar ezagutza sustatzea, migrazio eta jatorri aniztasunaren eremuan" eta sarri, indar hartzen duten esterotipo negati-



boak deseraikitzen laguntzea.

Azken urtebeteko datuak bildu eta modu ulerterraz batean aurkeztu dizkigute web orrialde berri honetan; besteak beste, Usurbilen dugun jatorri aniztasuna, bilakaera, iazko bajak eta altak, migrazio salda... zenbakitan ageri dira.

Adibide moduan, Usurbilgo bizi-lagunen 2015ari dagozkion jatorri aniztasunari loturiko datuak dituzue segidan. Usurbil Herri Anitza dugula argi erakusten dute:

■ Herritarrak guztira: 6.201.

■ Euskal Herria: 5.128 (%82,7).

■ Europa: 796 (%12,7).

■ Amerika: 197 (%3,2).

■ Afrika: 57 (%0,9).

■ Asia: 21 (%0,3).

■ Ozeania: 2 (%0,0).

Informazio gehiago:

[usurbil.eus/udal.aztiker.com/usurbil/](http://usurbil.eus/udal.aztiker.com/usurbil/)

### Elkarretaratzea ostegunean, Usurbilgo Sortuk deituta

2014. urtean zehar euskal presoek Euskal Herriko espetxeetara gerturatzeko eginiko eskaerak Espainiako Espetxe Zaintzaren ezetza jaso zuten. Horren aurrean, presoek helegiteak aurkeztu zituzten. Lehen helegiteak aztertzen hasiko dira ostiral honetan, Auzitegi Nazionalan. Tartean da, Xabier Aranburu "Xomorro" preso aginagarrarena.

Honen aurrean, mobilizazioak iragarri ditu Sortuk, "herriz herri, presoak Euskal Herriratzeko eta sakabanaketa amaitzeko". Usurbilen, ostegun arratsaldean 19:30ean elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

## Hondakinen kudeaketa eredia txalotu dute Galiziatik



Pontevedrako Aldundiko gobernu taldekoak izan dira Usurbilgo kudeaketa sistema ezagutzen. Argazkian dira, Xabier Arregi alkatearekin batera.

**G**aliziarrak bisitari izan genituen irailaren 9an Usurbilen. Iruditan duzue Pontevedrako Aldundiko eta udaletako ordezkari politiko eta teknikari taldea, Artzabal atarira iritsi berritan. Hego Euskal Herrian barrena, hondakinak kudeatzeko dauden eredu ezberdinak ezaizteko egiten ari ziren bidaiaren baitan, Usurbilen egin zuten geldialdia. Euskal Herrian atez ateko bilketan aitzindari dugun udalerrri honetan

hondakinen kudeaketaren eremuan egiten denaren berri jaso zuten, udal ordezkarien eskutik. Interes handia erakutsi zuten. Usurbilgo Udala ere zoriondu zuten, udalerrri hau zero zaborrerantz jorratzen ari den bideagatik. Pontevedrako Aldundiko gobernu taldea, PSOE eta BNG alderdiek osatzen dute egun. Oposizioan dira PP eta SON alderdiak. Eragileotako ordezkariak etorri ziren Usurbila.

### Hondakin gutxiago erraustu nahi dute

Pontevedran egun, erraustegia dute Sogama izeneko udalerrian. Organikoa konpostatzen duten herritar gutxi daude eta ezer gutxi egin dute orain arte eremu honetan. Organikoa gaika biltzeko ontzi marroirik ere ez omen dute. Aurrera begira, konpostatzearen aldeko apustua egitekotan dira. Erraustegira garraiatzen duten hondakin kopurua murriztu nahi dute.

## 2019rako erraustegia martxan izango da, Aldunditik ziurtatu dutenez

**A**biatu berri den lau urteko legealdi hau amaitzerako, 2019. urterako alegia, Zubietako erraustegia eraikita eta martxan izango da jada. Markel Olano Ahaldu Nagusiak hilabeteotan iragarritakoa berretsi du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatu Jose Ignacio Asensiok, aurreko astean Batzar Nagusietan egin zuen agerraldian.

### Zero Zaborretik, "zero zaborregira"

Hitzez hitz, "zabor birziklatu ezinak eta biodegradagarriak ez direnak soilik" bideratu nahi ditu Diputazioak lau urte barru martxan izatea aurreikusten duten erraustegira. Birziklagarria den hondakin guztiei begira, Asensiok adierazi zuenez, "Ingurumeneko Departamentuak

Europako direktibetan ezarritako hondakinen hierarkia beteko du, hau da, prebentzioa, berrerabilera, birziklatzea eta balorazio energetikoa".

Herritarrek hondakinak gaika biltzeko eginiko ahalegin handia aitortu zuen, baina bere esanetan tratamendurako azpiegiturak falta dira. "Ez dago benetako irteerarik eta emandako konponbide bakarra zabortegetan lagatzea da, justu baztertu beharrekoa", adierazi zuen Asensiok. Zabortegetatik gabeko lurraldea nahi du Aldundi berriak, ingurumen diputatuaren hitzetan, helburua "zero zabortegeta" izatea da Gipuzkoan.

### Hondakinen plana "eguneratuko" dute

Zabortegetatik ez, eta erreusa tratatzeko azpiegiturak bultzatu beharrak

daudela gaineratu zuen. Egitas-mook gauzatu artean, "ondoko lurraldeetako erakundeekin" harremanetan jartzeko asmoa du Aldundiak, "aldi baterako konponbideak aurkitze aldera".

Erraustegia planteatzen dute, oso larritzat jotzen duten egungo egoera konpontzeko. Hondakinen plana eguneratu asmo dute, eta diotenez, "egungo egoera larria konpontzeko, bukatzeaz dagoen aurreikuspenaren emaitzak erabiliko dira. Aurreikuspenak benetako zenbatekoak eta hondakinen fluxuak adieraziko ditu, eta zehaztuko ditu aurreikusitako Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroaren garrantzi operatiboa eta funtzionala, konpostatze planta berrien beharrak edo hasieran Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitakoen berrazterketa, eta baita ere



Jose Ignacio Asensio, Foru Aldundiko Ingurumen diputatua.

balio handiko material birziklatuak sustatzeko azpiegituren eta baliagarriak ez diren azken zatikien kudeaketa edo balorazio energetikoaren arteko sinergia".

Esku artean dituen asmo guztioekin, Aldundiak 2030erako zabortegetara hondakinik ez botatzeko aurreikusten du, "hiri hondakin solidoen tasa" %70ekoa eta ontzien birziklatze tasa %80tik beherakoa izatea.

# Imanol Zubeldia, zesta-punta jokalaria ohia

## “Lau urtez izan nintzen profesional”

**D**uela 30 urte Bartzelonara abiatu zen. Zesta-puntan bikain aritzen zen, eta onenekin lehiatu nahi zuen. Hori zen bere ametsa. Bartzelonako frontoi batean egin zuen debuta profesional mailan. Baina ordurako zesta-punta gainbehera etorria zen eta nahi baino azkarrago amaitu zuen bere ibilbidea. Katalunia puri-purian den honetan, Imanol Zubeldiarengana jo dugu iritzi eske.

**NOAUA! Honez gero, zenbat urte egin dituzu Bartzelonan bizitzeko?**

**Imanol Zubeldia.** Aurten, 30 urte beteko ditut hemen bizitzeko.

**Usurbilen baino urte gehiago egin dituzu han.**

Bai, bai. 18 urterekin etorri nintzen. Iritsi eta lau egunera 19 urte bete nituen.

**Hala ere, euskaraz primeran egiten duzu. Bikotea ere euskalduna duzu akaso?**

Ez, bitan ezkondu naiz eta bi bikotekideak hemen ezagutu nituen. Euskaldun izatea zer da ba, euskara edukitzea ezta?

**Lagunekin eta etxeokoen ari-tuko zara orduan.**

Hori da. Asko galdu dut, halere. Usurbil aldera joaten naitzenean sumatzen dut. Ulertu, dena. Jakina. Baina hitz egiterakoan...

**Ba primeran egiten duzu.**

Ikastolan ikasitakoak gara. Baina ez daukat lehenagoko erraztasunik. Normala, bestalde. Horrekin kontsolatzen naiz!

**Puntista izan zinen. Eta oker ez banago, zesta-puntari segika iritsi zinen Bartzelonara.**



Bartzelonan egin zuen debuta 80ko hamarkadan. Geroztik Katalunian bizi da.

### IMANOL ZUBELDIA

**“Bartzelonako gure frontoia Amerikako Estatu Batuetako enpresa baten eskola modukoa zen. Handik Ameriketara joateko aukera zegoen. Eta jende askok bide hori egiten zuen. Guri ordea, grebak harrapatu gintuen”**

Bai, hori izan zen Kataluniara joateko arrazoi bakarra.

**Puntista profesional gisa aritze-ko joan al zinen?**

Bartzelonan egin nuen debuta. Amerikako Estatu Batuetan greba hasi zen arte, puntista bezala aritu nintzen Bartzelonan. Lau urtez izan nintzen profesional.

Usurbilgo beste gazte bat ere etorri zen, Xabier Irasuegi. Hemen jokatu zuen lau urtez, eta gero Huelvara joan zen. Palos de la Frontera herrian zesta-puntako eskola bat zabaldu zuten. Irakasle bat behar zuten eta hara joan zen Irasuegi. Ni Bartzelonan geratu nintzen bizitzen. Egunean bost partida jokatzeko ziren, astelehenetik larunbatera.

**80ko hamarkada amaiera zen. Jendea joaten al zen frontoira?**

Ni iritsi nintzenean asko jeitsita zegoen. Pentsa, garai batean 10 frontoi izan ziren Bartzelonan. Gero frontoi bakarra geratu zen. Gurea. Eta profesional bezala han debutatu genuen. Diru gutxi irabazten zen, baina Amerikako Estatu Batuetara joateko ikusmirarekin joan ginen.

**Lau urte egin zenituen puntista gisa Bartzelonan. Ameriketara joateko aukera izan al zenuen inoiz?**

Bartzelonako gure frontoia Amerikako Estatu Batuetako enpresa baten eskola modukoa zen. Diru gutxiago irabazten zen baina debutatzeko aukera eskaintzen zuten. Handik Ameriketara joateko aukera zegoen. Eta jende askok bide hori egiten zuen. Guri ordea, grebak harrapatu gintuen.

Ameriketara joateko kontratua hitzez hitzartua genuen. Baina grebarekin bertan behere geratu zen aukera hura.

### “Estelar gehienak jokatzeko nituen”

**Greba hura izan ez balitz, akaso Amerikan izango zinen orain?**

Guk utzi genuenean 34 pilotari ginen eta gehienak hara joango ginen seguruenik. Punta-puntan ibiltzen nintzen ni, Irasuegi ere bai, eta estelar gehienak jokatzeko genituen. Ameriketara joateko aukera gehien zutenak horiek ziren, punta-puntan ibiltzen zirenak. Zortea ere behar zen, eta abizenak ere zerikusi handia zuten.

**Zure abizenak ez zuen asko balio ala?**

Ez! Bat ere ez. Nire familian ez zuen inork puntan jokatzeko. Bizkaitarrek zuten bentaja handiena. Anaiak, osabak edo aitak Amerikan jokatzeko bazuen, hark erraztasun gehiago zuen.

**Euskal Herrian, non aritzen zinen zesta-puntan?**

Andoainen aritzen ginen. Han bazen frontoi handi bat, baita maisu bat ere. Donostiako Baldan ere aritzen ginen, baina batez ere Andoainen. Bizikletan, autobusean, nolabait joaten ginen...

# “Independentista izan edo ez, hemen jende askok hitz egiten du katalanez”

**NOAUA! 23 urterekin puntista profesional izateari utzi zemon baina Katalunian geratu zinen bizitzen.**

**Imanol Zubeldia.** Ez zuten diru asko pagatzen frontoian, eta lanean ere aritzen ginen. Jate-txe batean platerak garbitzen aritu nintzen, eraikuntzan ondoren, frontoian ere aritu nintzen zestuak konpontzen...

Frontoiarena bukatu zenean, Usurbilera joan nintzen, baina denbora gutxi egin genuen herrian.

**Eta Bartzelonara itzuli zinen.**

1989ko buelta horretan, industria-birmoldaketaren garaia izan zen eta hura ez zen garai ona izan. Horregatik itzuli nintzen Kataluniara.

Urtebete egin nuen konstrukzioan lanean eta gero oposaketetara aurkeztu eta udaltzain postua lortu nuen Bartzelona ondoko herri batean. Beste oposaketa batzuk egin nituen ondoren, eta orain Santa Perpetua de Mogodan ari naiz udaltzain bezala. 27.000 biztanle ditu herriak.



“Frontoiarena bukatu zenean, Usurbilera joan nintzen baina denbora gutxi egin nuen han”. Bartzelonara itzuli zen berriro.

## IMANOL ZUBELDIA

**“1989ko buelta horretan, industria-birmoldaketa eman zen Euskal Herrian. Hura ez zen garai ona izan. Konstrukzioan lanean aritu eta gero, oposaketetara aurkeztu eta udaltzain postua lortu nuen Bartzelona ondoko herri batean”**

**Nongoa zaren galdetzen badizute, zalantza egingo duzu akaso.** Hori dudan jartzea ere!

**30 urte egin dituzu han...**

Baina ni usurbildarra naiz. Lasarten jaio nintzen, eta lehenengo lau urteak Lasarteko baserri batean pasa nituen. Baina ni usurbildarra naiz.

**Sagardoa lortzeko modurik ba al duzu han?**

Etxe ondoan gainera. Etxe ondoan daukat nik sagardotegia! Denda bat bada hemen, kate katalan bat, eta sagardoa ere saltzen dute.

**Katalana ikasiko zenuen. Lanerako ere beharko duzu, ezta?**

Bai, hala da. Lanean hasteko ere, eskatu egiten dute. Independentista izan edo ez, hemen jende askok hitz egiten du katalanez.

## “Independentzia mugimenduaren erdian sustrai ekonomikoa dago”

**NOAUA! Igandean bozketa eguna duzue Katalunian. Beste hizpiderik ez da izango.**

**Imanol Zubeldia.** Gaia kalean dago. Zer nolako emaitza aterako den hauteskunde gauan, hori da kontua.

**Esaten den bezain parekatuta egongo al da emaitza?**

Telebistan hala esaten dute. Baina nik uste dut ezezkoa aterako dela. Erratuta egotea nahiko nuke hala ere.

**PP, C's, PSC, Unió eta Podemosen inguruko koalizioaren**

**aurrean, boto gutxiago lortuko dituztela indar independentistek (Junts Pel Si eta CUP).**

Uste dut hala izango dela, zoritxarrez. Beldurra ere, asko dago.

Bestetik, Convergenciaren kalte handia egin du (ustezko ustelkeria kasuak). Eta Jordi Pujolen asuntua ere oso mingarria izan da. Horrek kristoren mina eman du, independentziaren aurkako botoa elikatzen du.

**Dena den, inoiz baino gehiago hitz egiten da independentziaz. Aduitu batzuk diote mugimendu**

**hori geldiezina dela.**

Hitz gutxitan, eta asko sinplifikatuz, independentzia mugimendu honen erdian sustrai ekonomikoa dago. Euskal Herrian foruak ditugu, eta Katalunian ez. Katalunian diru asko sortzen da. Langileengatik jasotzen den dirua adibidez, zuzenean Espainiako Gobernura joaten da. Baina gero Espainiako Gobernuak Kataluniara bidaltzen duena gutxiago da.

Hemen diru asko sortzen da. Espainiako BPGaren laurdena (barne produktu gordina) Katalunian sortzen da, hala ulertua daukat nik. Ba pentsa, Kataluniak diru hori



kudeatzeko aukera izango balu...

Horregatik diot, eta beste askok ere hala pentsatzen dute, independentzia ekonomikoan dagoela sustraitua mugimendu hau. Eta kontuz, hori ez da txarra den zerbait. Espainiak sortu duen zulo ekonomikoaren aurrean, zilegi da independentzia eskatzea.

# “Helburua istorioak kontatzea da”

JOSEBA LARRATXEK KOMIKI IKASTAROA ESKAINIKO DU TOLOSAKO LIBURUTEGIAN

**K**ilometroak15-eko bideokli-paren egileetako bat da Joseba Larratxe. Marrazkilaria ogibidez, Jakoba Errekondoren *Bizi baratzea* (Argia) liburuan edota Argia aldizkarian topatuko dituzue bere azken ilustrazioak. Komikiari buruzko ikastaro bat eskainiko du laster Tolosan.

**NOAUA! 'Komikia, mugimendu ikusezina'. Hitzaldi baten kutsua hartu diogu ikastaroaren izenburuari. Zentzu batean hala izango da, teoriotik ere izango duelako ezta?**

**Joseba Larratxe.** Bai, saio bakoitzak bi parte izango ditu: lehena teorikoa, komiki bat egitearen prozesuko parte jakin bat jorratuko dugu. Eta bigarren partean ikasitako hori praktikan jartzen saiatuko gara. Horrela, ikastaroaren bukaeran, ikasle bakoitzak komiki labor bat eginda izatea da helburua. Baina tartean komikiaren historia eta izaerari buruz hitz



Urriaren 5ean hasiko da ikastaroa. Izena emateko epea irekita dago oraindik.

egiteko denbora ere izango dugu. Hortik dator izenburua. “Mugimendu ikusezinak” bi ideari egiten die erreferentzia: batetik, komikiak denbora eta mugimendua modu abstraktuan irudikatzen dituelako (benetako mugimendu eta denboraren iraganik gabe), eta bestetik, komiki zaletasuna lur azpiko mugimendua izan delako,

publiko orokorarentzako ikusezina.

## Urriaren 5etik aurrera

- Noiz: Urriaren 5ean hasita bi hilabetez, astelehenero. 18:00-20:00.
- Non: Tolosako Liburutegian.
- Matrikula: 20 euro.
- Izen-ematea: gazteria@tolosa.eus

## Emakumeentzako ahalduentze ikastaroak

### “Hegoak ebaki banizkio”

Egunak: urriak 19, 26, azaroak 2, 9, 23, 30, abenduak 14 (astelehenak).  
Orduetgia: 17:00-19:00.  
Lekua: Potxoenean, euskaraz.

### “Heldutasunaren gozamina”

Eguna: ostegunetan. Urriak 1, hasiera data. Orduetgia: 17:00-19:00.  
Lekua: Bake Epaitegiko atzeko lokalean. Gazteleraz.  
Hasiera data: Urriak 1.

- Izen ematea doan: 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



**Nafartarrak Kultur Taldearekin batera, 45 lagun joan ziren Orreagara. Ibañetako gainan autobusa utzirik, “Lepoeder gainara hurbildu ziren eta bertan Beñi Agirrek, Nabarraldeko kideak, zehatz mehatz esplikatu zien nolatan Eneko Aritzaren gidaritzapean zegoen gudarosteak Karlomagnoaren 10.000ko gudarostea garaitu zuen. Hurbildutakoak euskal historiaren memoriaz jantzirik itzuli ziren herrira”.**

## Muxurbil Antzerki Taldea

Irailan hasiko ditu klaseak. Haur, gazte eta helduak ongi etorriak izango dira. Izen emateko: muxurbil@gmail.com  
675 71 23 83 (Ixabel)

## Ekitaldi ugari, Gure Pakearen eskutik Irailak 30, asteazkena

- 08:15 Hernanira autobusez Lau-rok ondoko geltokitik eta Hernanitik Lasartera ibilaldia gero: Hernani-Urnieta-Lasarte. Iraupena: 3 ordu inguru. Hamaiketako (nork bere kontura) Lasarten.
- Eguerdian, bazkaria nahi duenarentzat Artzabalen. Prezioa: 12 euro. Izen emateko azken eguna: irailaren 25a.

## Urriak 1, osteguna

- 16:30 Hitzaldia Artzabalen: “Herentzia eta Testamentua”.

## “Emozioen heziketa”, urriaren 1etik aurrera Santuenean

Juanjo Lertxundik gidatuko duen ikastaroa urriaren 1ean aurkeztuko dute, 18:30ean Santuenea Elkarteko egoitzan. Yoga eta reiki saioak martxan dira jada:

### Yoga. Irakaslea: Juanjo

- Asteartetan: 18:30-20:00.
- Astearte eta ostegunetan: 09:15-10:45. Irakaslea: Abelina. 16:00-17:30. Irakaslea: Juanjo. 20:30-22:00. Irakaslea: Abelina.

### Reiki. Irakaslea: Abelina

- Asteazkenetan: 18:30-20:00.
- Informazioa: Abelina Manso (619 791 170) eta Juanjo Lertxundi (637 413 691).



**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

  
**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**





*Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)*



## **TALASOTERAPIA ETA HOTELA DEBAKO AISIAN...**

- **Itsas ura modu terapeutikoan erabilia.**  
Bere ezaugarriak, lokatza, algak eta gatzak diren elementuei batua, gaitz ezberdinak saihesteko balio dute. Abantailak oso handiak dira, analgesiko ondorioa nabarmenduz, min orokorra eta gorputzaren zonalde zehatzetan mina murrizteagatik.
- **HOTELAREKIN ESKEINTZA BEREZIAK:**  
Asteburuko edo gau bateko eskeintzak (gaua, pentsio erdia, masajea...), talaso +**MARISKADA**+ gaua ...



*Markiegi Kalea 6 DEBA (Gipuzkoa) 943 60 80 52 [deba@aisiahoteles.com](mailto:deba@aisiahoteles.com)*

# Larunbat honetan kantu-jira eta kontzertu berezia, Zuberoako lagunekin batera

Egun handirako astebete baino falta ez denean, kantuan eta dantzan aritzeko aukera ezin aproposagoa izango dugu larunbat honetan. Zuberotarrek kantu-jira eta Xiberoots reggae taldearen emanaldia antolatu baita, #Kilometroak15-en alde. Zuberoatik datozen lagun artean da Mixel Etxekopar, eta kantu-jira berezia izango denez, hainbat xehetasun eman dizkigu.

**Zer nolako musika eta dantza festa izango dugu irailaren 26an?**

**Mixel Etxekopar:** Badugu kolektibo bat Zuberoan, arte herrikoiatik abiatuz hamaika gauza egiten duena. Hamaika eta bat garrena Usurbilen. Gure afera da Lesakatik Markinara, bost ekitaldi ospatzea bost herritan, eta bat Usurbilen. 19:00etan hasiko gara Sutegi aldean Pierre Vissler eta ni, entzunketa edo grabaketa zaharrekin. Gero hortik abiatuko da Kantu-jira berezia; Jean Mixel Bedaxagar, Sacha Standen eta hirurok parte hartuko dugu. Elkarren diskoa prestatzen ari gara. Grabatua dugu, orain emanaldia kantu zahar eta berriekin. Irailaren 26an itzulera bat egingo dugu plaza aldetik plaza aldera, 4-5 tokitan geratuz kantatzeko sinpleki. Muxikoak ikasten dituztela hemen entzuna dut eta Muxikoak biziki



Mixel Etxekoparrek ere hartuko du parte larunbateko kantu-jiran.

## MIXEL ETXEKOPAR

**“19:00etan hasiko gara Sutegi aldean Pierre Vissler eta ni, entzunketa edo grabaketa zaharrekin. Gero hortik abiatuko da kantu-jira berezia; Jean Mixel Bedaxagar, Sacha Standen eta hirurok parte hartuko dugu”**

maite dut. Odolean baititut sortu aurretik. Gauean gazteari lekua, gure seme eta lagunei, Xiberoots reggae taldeari. Oso modu polit batez, seriooki egiten dituzte eu-

ren kantuak. Euskal kantuak reggae moduan ematen dituzte. Zorte handia dugu eta dute, Zumetaren margolanaren aurrean emanaldia eskaintzeko. Ez da egunero gertatzen.

**Mikel Laboa plaza emanaldirako egokia ote zen jakin nahi zenuen. Bertaratu ostean, zer iruditza zaizu?**

Aspaldi maite dut gunea. Usurbil aipatzen denean, bada Usurbilgo elizaren horma, baina 1973tik bada Zumetaren horma. Leku izena bera ondo pentsatua dago, Mikel Laboa plaza. Horrek ere ekartzen du kutsu poetiko izugarria. Eta kotxerik gabea da gunea, dantzan eta lasaiago egiteko aproposa. Guretzako ez da herri txikia Usurbil, hiri handia da Zuberoatik ikusita. Baina ongi pentsatua bizilekua izateko.

**Nola bizi duzue Zuberoatik inguruotan azken urteotan sortu eta sendotzen joan diren kantu taldeen bilakaera?**

Kantu zaletasuna plazerrez ikusten dugu, gu horretan bizi gara, sortzetik eta ehorzketaraino kantatzen da. Kantatzea normalean Zuberoan bizitzen da, baina ez lehen bezala, bistan da. Lehen ostaluetan gehiago abesten zen, baina ikusten denean ze kantu zaletasuna den Zuberoan ere gazteengan, orain pentsatzen dut kulturaliki on egiten du. Zuberoako kasuan, euskara galtzen den heinean nonbait jaten duzu kantu bat, sagarra bezala jaten duzu hizkuntza ere bai. Hizkuntza galtzen dutenek lehen urratsa egiten dute. Ez da hain anekdotikoa nik uste. Kantatzen duen herria ez da hiltzen.

**#Kilometroak15 urriaren 4an. Distantziatik nola ikusten duzu, halako ekimen batek sortzen duen mugimendua?**

Dinamika aldetik oso ederra. Eta hori egiazki baldin bada dinamika herrikoia, ikastolaren inguruan bada zerbait lortua. Badugu beharra guk gozatzeko eta indarra biltzeko, han euskaltzale geratzeko. Baina zubia bi aldeetan da. Ez da karidadea. Instituzioek ez digute eskatzen hala egitea eta horretan du indarra nik uste.

## Kantu jira arratsalde, Xiberoots taldearen reggae kontzertua gauez

**Irailak 26, larunbata**

■ 19:00 Garai bateko abestien emanaldia Sutegi inguruan, eta segidan handik abiatuta, kantu-jira. “Zuberoatik Jean Mixel Bedaxagar (Urđiñarbekoa), Mixel Etxekopar (Gotaineko musikaria) eta Sacha Standen (Lakarrin bizi den laborari biolin jotzaile ingeles) etorriko dira eta Usurbilgo Kantu Taldearekin batera kantari ariko dira”.

■ 22:30 Zuberoako Xiberoots taldearen emanaldia Mikel La-



Xiberoots taldekoak Mikel Laboa plazan arituko dira, gaueko 22:30ean.

boa plazan.

“Sei gaztek osatutako taldea,

Euskal kantuairen maitaleak, eta reggae zaleak ere! Kantu zahar

eta berriak Zuberoatik Jamaikara!”.

Partaideak: Jon Etxekopar (ahotsa eta tronboia); Pette Jaragoihen (gitarra eta ahotsa); Jordi Foucher (perkusioak); Niko Guiesse (teklatura); Antoine Stassinnet (guitarra) eta Armand Ahusborde (gitarrapala).

Antolatzaileak: Jexux Artze K.E., Kantu Taldea eta #Kilometroak15.

## Prebentzio tailerra, tabernariekin eta txosnetako langileekin

#Kilometroak15 egunez adin txikikoen artean, substan-tzien kontsumo arduratsua sustatzeko lanean dabil urte osoan, jaialdi erraldoi honen antolakuntza taldeetako bat; prebentzio batzordea. Udaberriar tailer-solasaldi bat antolatu zuten, dekalogo bat ere kaleratu dute urriaren 4an tabernetan eta txosnetan lanean jardungo dutenentzat. Alkohola zerbitzatzen arituko diren langileekin prebentzio tailerra egin zuten baita, aurreko astean Potxoenean.



Urriaren 4an txosna zein tabernetan lanean jardungo dutenekin bilera egin zuten Potxoenean.



### Aldundiaren babes

Gipuzkoako Foru Aldundiak #Kilometroak15 ekimeneko antolakuntza taldeko ordezkari harrera egin zion aurreko astean. Ahaldu Nagusiak euskararen eta inklusibitatearen alde "egunero" dihardutenen lana goraiatu zuen. Inklusibitatearen aldeko dekalogo sinatu duten erakundearen artean da Aldundia.

### Laguntzaile premian

"Animatu urriaren 4ean laguntzera". Antolatzaileren gonbita. Lan batzordeetan apuntatu ez bazarete oraindik, honatx izen emateko dituzuen bideak: 943 36 12 16 (Udarregi Ikastolako idazkaritza) edota kilometroak2015@ikastola.eus

### Gattunk banderola

Astebete #Kilometroak15 eguna heltzeko, zer hobeto etxeetako balkoiak apaintzea baino. Gattunk dendan daude eskuragarri: Astelehenetik larunbatera: 10:30-13:00 / 18:00-20:00 (astelehen goizetan, larunbat arratsaldeetan eta igandeetan itxita).

## Trafikoari loturiko oharrak

Gogoan izan, larrialdi egoerak edo ezinbestekoak diren kasuak salbu, ezingo dela autotz ibili urriaren 4an. Hainbat ohar luzatu zizkiguten, gaia kudeatzen aritu den #Kilometroak15 ekimeneko trafiko batzordetik:

■ Ibilgailuen aparkalekuak: Urbil (Donostiatic G-20tik datozenentzat), Belartza (N-1 errepidetik datozenentzat) eta Aritzeta (A-8tik datozenentzat).

■ Autobusak aparkalekuetatik Zumartegi industriagunera.

■ Autobusen aparkalekua: Zumartegi industriagunea.

■ Autokarabanan aparkalekuak: Atxegaldeko Mahaspildegia elkarre azpian, Urdaigan, Harane eta Araetako aparkalekuan.

■ N-634 errepidearen trafikoa murriztuko dute, Belartzako errotondatik Orioko Txanka pareraino. Errepidea irekita soilik: autobusentzat,

larrialdi zerbitzuentzat, edo premia duten herritarrentzat.

■ Udalerriko sarrerak itxita ibilgailuentzat. Zubietan ere Eskola Txiki parean itxiko da sarrera ibilgailuentzat. Hortik Santuenera bidera irekita oinezko eta bizikleta erabiltzailentzat.

■ Udallerri barruan: zirkuitua igaroko den zonaldeetan ezingo da autoa aparkatuta utzi ezta mugitu ere.

## Lehen mailako futbolarien atxikimendua



Raieko eta Oiartzungo futbol taldeetako neskek ere, #Kilometroak15-ekin bat eginik. Lagunarteko partida jokatu zuten aurreko larunbatean Hara-

nen. Partida baino lehen, #Kilometroak15-eko pankartarekin urriaren 4ko jaialdiari atxikimendua adierazi zioten. Talde bakoitzak gainera, oroigarri bana eman zioten Uda-

regi Ikastolari eta #Kilometroak15 ekimenari.

### Sarai Lizaso omendu zuten

Kontxako Banderan, emaku-



mezkoen txapelketan merezitako garaipena eskuratu zuen San Juan taldeko kide Sarai Lizasok. Usurbildarraren ohorezko sakearekin hasi zuten partida.

## Giro ederra Santuenerko jaietan

**G**iro ederrean joan zaizkigu Santuenerko jaiak ere. Igande arratsalde benetan jendetsuarekin borobildu zituzten asteburuko festak. Kontzertu gau bikoitza edota bertso afari musikatua izan dira, egitaraura txertatu nahi izan dituzten osagai berriak. Asteburuan zehar atera ditugun argazki eta bideoak noaua.eus atariko Argazkitegian eta NOAUA! TB atalean dituzue ikusgai.



Argazkiak eta bideoak, [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus) web orrian ikusgai.

### 20. Artisautza Azokan parte hartzeko deia

Azaroaren 1ean izango da, Aitzaga Elkarteak antolatuta. Artisauak parte hartzera deitzen dituzte, azokan postua jar dezaten. Urriaren 10era arteko epea dute izena emateko. Apuntatzeko Aitzagarekin harremanetan jarri edo Udalera deitu (943 371 951) eta datuak (izen abizenak, artisautza jarduera, telefono zenbakia edo helbide elektronikoa) eman. "Artisautza lantzen duen adierazlea duen agiria kontuan izango da".

### Parte hartzeko araudia

- Artisautza lantzea eskatzen da eta lehentasuna izango du.
- Postuetan euskarak bere presentzia izatea eskatzen da.
- Gehienez bi mahairentzako lekua izango da postu bakoitzean.
- Dietak eta hamaiketako egongo da (Postuan daudentzat).
- Postu bat baino gehiago jartzen duenak dieta bat jasoko du.
- Antolatzaileek eskumena izango dute postuak aukeratzeko.

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 €** tik

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sub>n</sub>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraза handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)





**ZERO ZABOR**  
Usurbil Zero Zabor

## KMK15en iturriko ura edan dezagun, eta ez plastikozko botilakoa

**K**MK15eko festan plastikozko botiletan ura ez saltzea lortu nahi genuen. Ez dugu lortuko. Ez baita onartua izan. Jasangarritasunaren helburuari zintzoki jarraituz, plastikozko botila kopuru handi bat, 15.000, ekiditea lortu nahi genuen besteak beste. Nola nahi ere, helburu hori lortzeko bidean beste urrats bat egitea onartu da: gurea den eta eskura daukagun herriko ura kontsumitzeko sustapena eta sentsibilizazioa lantzea. Gure esku dago, urrats hau sendotasunez gauzatzea; hurrengoetarako, plastikoan botilaratutako ura ez dela beharrezkoa agerian utziz.

Marka! da gero, gizakion oinarrizko eskubidea den ur edangarriarekin munduan gertatzen ari dena. Ur edangarririk ez daukatenak 1.000 milioi baino gehiago dira. Hauetako asko, inguruan dauzkaten meategietan multinazionalak, ustiapen basatiak eginaz, urak kutsatu dizkietelako, eta gu bitartean, ukiezina den erosotasunaren izenean, urrearen prezioa ordainduz botilaratutako ura edaten, mila aldiz merkeagoa eta kalitatean inbidiarik ez daukan sareko urari muzin eginaz. Baina jokabide hori ez da debaldekoa: alde batetik, guztiona den ingurumenean kalte larriak eragin eta pilatzen ari gara, eta bestetik, botilako uragatik ordaintzen dugunaren



"Gure esku dago, urrats hau sendotasunez gauzatzea".

### USURBIL ZERO ZABOR

**"Guk ere asko eragin genezake: etxean iturriko ura kontsumituz, ostalaritzan iturriko ura eskatuz, eta noski, KMK15eko festan eskura izango dugun Usurbilgo iturriko ura edanaz. Doan eta primerakoa dena"**

%90a, botila bera ordaintzeko izaten da, gero, kasurik gehienetan, gure bazter, erreka, ibai edo itsasoan amaitzen duelarik. Edo okerragoa dena, erraustegi batean erreko da, are eta osagai kutsakorragoak sortuz. Izan ere, %30a bakarrik biltzen baita gaila gero birziklatzeko. Eta hori zenbat da? Ba, 2,7 milioi tona hondakin urtean. Gainera botila bakoitza egiteko, litro laurden petrolio eta hiru ur litro xahu-

tzen dira, prozesu horretan ere hondakin gehiago sortuz.

